

1978-XII-29

Bilbon, Bizkaiko Diputazio jauregian egin du Euskaltzaindiak urteko azken batzarra, 1978.eko Abenduaren 29an. Arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta A. Zavala euskaltzainak; P. Altuna, J.L. Alvarez "Txillardegi", N. Alzola, P. Charritton, J.A. Etxebarria, X. Gereño, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oregi, J.A. Retolaza, P. Uribarren, J.J. Zearreta eta Mikel Zarate laguntzaileak, J.M.^a Satrustegi idazkari dela. Ezin etorria adierazi dute: Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, eta Larzabal euskaltzainak.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Villasante jaunak, mahai buruan dagoen Diputazioko lehendakari Amorrortu jaunari eskerrak eman dizkio, gure Bilboko ordezkari berria sortzerakoan eginak dituen ahalegin aipagarriengatik.

Era berean, gero, J. San Martin jauna eskertu du idazkaritzan orain arte egin duen lan isil eta neketsuagatik, diruzain karguan jarraituko delako poza agertuz; eta J.M.^a Satrustegi idazkari berriari ongietorria eman dio.

BATZORDE LANAK

Gaur zortzi, Gipuzkoako Diputazio jauregian batzordeek eginolako bilkuren berri eman da: a) Altuna jaunak, Bergarako Biltzarreko adierazpenean agindutako erakusleei buruzko erabaki proposamena aurkeztu du, hortarako izendatu zen batzordearen izenean. Hilabete barruko zuzenketa epea irikitzen da. b) Uribarren jaunak, Bergarako Biltzarreko adierazpenaren 6. puntuan erabaki bezala, Hezkuntza Ministeritzari zuzentzeko batzordeak prestatu duen eskaria irakurri du. Zuzenketa txiki batzu egin da igorriko da. d) Aita Zavalak bertsolaritzaren egoeraren berri eman du, adieraziz, premiazko ikusten duela batzordeak bertsolari txapelketak eratzea. e) Mendiguren jauna, irakaslego batzordearen izenean mintzatzekoa zen, eta Zearreta jaunak egin du haren orde. Euskaltzaindiaren titulua aterako dutenen gaitasunari buruz eta dauden tituluaren gaurkotzeaz aritu da.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzainburuak datorren urtean, Arrasaten, egingo den Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrari buruz, goizeko euskaltzain osoen erabakia adierazi du. Seber Altuberen omenetan izango da eta Abenduaren 20tik 23ra, gai nagusia, gramatika izanik, batez ere *morfologia* eta *sintasia*. Urtarrileko batzarra baino lehen oharrak bidaltzea komeni da. Hizkuntz batzordeak esango du gero horietatik zein aukeratu. Biltzar hontarako, batzordeak honela izendatuak gelditzen dira: *Hizkuntz batzordea* bi atalez osotua: a) *Kontselariak*: L. Mitxelena buru, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, P. Lafitte eta L. Villasante. b) *Eragileak*: J.A. Letamendia, R. Badiola, Patxi Goenaga, Jose Antonio Mujika eta P. Pujana. *Batzorde idazkaria*: J.A. Letamendia eta *idazkari-ordea*: M.^a Pilar Lasarte. *Antolakizun batzordea*: J.M.^a Satrustegi buru, J.L. Lizundia idazkari, M. Lasa, I. Laspiur eta J.J. Zearreta, Arrasate bertako zenbait ordezkariekin gehituz.

Euskaltzainburua

Luis Villasante

Idazkaria

Jose Maria Satrustegi